

## LEHIAKETAREN OINARRIAK

### I. SARIA:

Epaimahaiaren Saria **300€** eta Gazte Saria (18-25 urte) **120€**.

### BALDINTZAK:

1. 18 urtetik gora izanik, [dantzahirian.com](http://dantzahirian.com) webgunean ageri den inprimakia betetzen duten pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan. Benetako datu egiaztagarriak eta harremanetarako telefono zenbaki baliagarria eskaintzen dituela ziurtatu beharko du lehiakideak, hori izango baita antolatzaileek lehiakideekin harremanetan jartzeko erabiliko duten bidea, haiei irabazle izan direla jakinarazteko.
2. Lehiaketan parte hartzea doakoa da.
3. Argazkilari profesionalek eta komunikazio-enpresek ezingo dute lehiaketa honetan parte hartu.
4. Argazkiak bidaltzeko, [dantzahirian.com](http://dantzahirian.com) webgunean ageri den Wetransfer esteka erabiliko da, inprimakiko izen eta abizen berberak adieraziz. Argazki bakoitzak titulu bat eta ondorengo datuak jaso beharko ditu: data, hiria eta eremua.
5. Egile bakoitzak gehienez ere 12 argazki original eta argitaragabe bidali ahal izango ditu, betiere lehendik argitaratuak edo beste lehiaketa batzuetan sarituak izan ez badira. Argazkiek 300 ppp gutxienerako bereizmen digitala edukiko dute eta argazki bakoitzaren fitxategi-tamaina ezin daiteke inola ere 1 MB baino txikiagoa izan. (2362 x 1772 pixel gomendatzen da, jpeg formatuan).
6. Antolatzaileek beretzat gordetzen dute eskatutako datu guztiak biltzen ez dituzten edo lehiaketaren baldintzak betetzen ez dituzten parte-hartzaile eta/edo argazkiak baztertzeko eskubidea.
7. Argazkiak bidaltzeko epea 2014ko irailaren 11an hasiko da 10:00etan, eta 2014ko urriaren 6an amaituko da 00:00etan. Epe horretatik kanpo aurkezten diren argazkiak ez dira kontuan hartuko.
8. Antolatzaileek beretzat gordetzen dute argazkiak jasotzeko epe horiek zabaldu edo laburtzeko eskubidea.
9. Dantza Hirian Jaialdiak izendatuko du Epaimahaia eta deialdi honen xede den alorrean ospe eta gaitasun handia duten pertsonen osatua egongo da.
10. Lehiaketarako hautatutako argazki guztiak Dantza Hirian Jaialdiaren **FLICKR** kontuan ikusgai jarriko dira.
11. Dantza Hirian Jaialdiak berrikusi egingo ditu bidalitako argazki guztiak, web gunean argitaratu aurretik, lehiaketaren oinarriak betetzen dituztela egiaztatzeko.

12. Dantza Hirian Jaialdiak baztertu eta ezabatu egingo ditu pertsonen ohoragarritasunaren edo intimitate-eskubidearen aurkako diren edo mezu arrazistak dituzten argazki guztiak.
13. Argazkiek originalak izan behar dute, ezin zaizkie hirugarrengeoi plagiatu edo ostu, eta lehiakideek horien egiletasuna frogatu beharko dute, baldin eta ekimen honen antolatzaileek hala eskatzen badiete. Lehiaketako antolatzaileek ez dute erantzukizunik bere gain hartzen erabiltzaileek bidaltzen dituzten argazkien inguruan, baldin eta hirugarrengeoen egile-eskubideak urratzen badituzte, eta haiek bakarrik izango dira erantzuleak, erreklamaziorik izanez gero.
14. Parte-hartzaileek, nolana ere, irudi-eskubideengatik edo hirugarrengeokiko eskubideengatik egiten den edozein erreklamazioren erantzukizuna izango dute, eta errurik gabe utziko dituzte Dantza Hirian Jaialdiko antolatzaileak, betebeharrorik urratzeagatik gerta daitekeen edozein lege-erantzukizunetatik.
15. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta irabazle izan diren argazkiak 2014ko urriaren 16an Dantza Hirian Jaialdiaren web gunean argitaratuz jakinaraziko dira.
16. Hautatutako lehiakideek beren izenak aipatzea eta beren argazki-lanak argitaratzea baimenduko dute, eta Dantza Hirian Jaialdiko antolatzaileak izango dira horien jabe, eta hain zuzen ere, hautatuak izateagatik eta saria emateagatik horien gaineko ustiapen-eskubide guztiak eskuratuko dituzte mugagabeki, eta ondorioz, edozein baliabide erabiliz formatu desberdinetan (Liburua, web book, aldizkaria, on-line bideoa... eta/edo asmatzeko dauden formatu guztietan) ikusgai jarri, argitaratu eta erreproduzitu ditzakete inolako irabazi-asmorik gabe, eta halaber, egilearen izena adierazi beste mugarik gabe lan horiek zabaldu ditzakete, egileari inolako etekin ekonomikorik sorrarazi gabe.  
  
Jaialdiak komenigarri jotzen duen beste edozein ekitaldiren parte ere izan daitezke. Nolanahi ere, beti egileen izenak aipatuko dira.
17. "BegiraDan" lehiaketan parte hartzeak berarekin dakar lehiaketako oinarriak nola antolatzaileen irizpideak onartzea.

## **DATU PERTSONALAK BABESTEAK**

Izena emateko inprimakiaren bidez jasotako datuak lehiaketako oinarriekin bat etorritik erabiliko dira, eta ez zaizkie hirugarrengeoi lagako edo jakinaraziko. Datu pertsonalak babesteko indarreko araudiekin bat etorritik, eskainitako datu guztiak Dantza Hirian Jaialdiaren erantzukizunpeko fitxategi automatizatu baten parte izango dira, lehiaketa egoki kudeatzeko eta oinarri hauetan zehaztutako xedeak hobeto betetzeko.